

MUSIKA

Negu Gorriak-ekin Los Angelesen

Joan den astean Negu Gorriak taldeak kontzertua eskaini zuen Los Angeles (Kalifornia) hirian, 'Begirunea Tour 96' biraren barruan. Christopher Upchurch Nevadan bizi den jatorri irlandarreko euskaldunberria da, eta bertatik bidali digu kronika hau posta elektronikoz.

Negu Gorriak-ek arrakasta izan zuen Los Angelesko kontzertuan, bira honetan Estatu Batuetan egin duen bakarrean. Hollywood Bulevarrean kokaturik dagoen Hollywood Grand aretoan jo zuten hilaren 10ean bostehundik gora entzuleren aurrean, gehienak mexikarrak edo jatorri mexikarreko estatubatuarak. Hala ere, Bakersfield (Kalifornia) hiritik joandako euskaldun-amerikar batzuk ere han ziren.

Hormetan jarritako lau pantailetan, 30 segundo irauten zuten filme laburrak proiektatu zi-

tuzten gau osoan zehar. Hor ikusi ahal izan ziren Afrikako tribu bateko kide bat saltoka eta kantuz, dantzari erotikoak... Taldeen atzean, ikurrina eta bandera mexikarra elkarren ondoan zintzilikatuta zeuden.

Guztira bost taldek jo zuten. Negu Gorriak aurretik hiru talde mexikar aritu ziren: Calavera, Los Olvidados, eta gonbidatu berezia, Resorte. Negu Gorriak atzetik eta kontzertua ixteko, Tijuana No talde mexikarrak jo zuten.


Negu Gorriak oso harrera ona jaso zuen. Jendea saltoka, oihuka eta dantzan ibili zen hasieratik amaierara arte. Lagun anitz eszenatokira igotzen saiatu ziren baina bakar batek lortu zuen. Mexikar bandera zeraman gazte bat zen, eta bi minutu taldearekin egon eta gero, beherantz eramane zuten segurtasunekoek.

«Viva Zapata» oihukatu zuen bakoitzean bero-bero jarri zituen Fermin Muguruzak entzuleak Los Angelesen. Izan ere, entzule gehienak mexikarrak edo jatorri mexikarrekoak ziren.

Jo zituzten abestiak disko guztietakoak izan ziren, eta baita baten bat *Idea zabaldu* disko berrikoa ere. Gaztelaraz azaldu zuten abesti guztien esanahia. Chiapas, Kuba eta abar aipatu zituen Fermin Muguruzak behin eta berriz. Eta «Viva Zapata» esan zuen bakoitzean, oihu animatuz bete zen

aretoa. Ez zen bis-ik egon, jendeak sutsuki eskatu bazuen ere. Amaieran, jendeak NG-ren kamisetak eta konpaktoak erosteari ekin zion. Agian, nolabait *idea zabaldu* lortu dute.

Christopher Upchurch
LOS ANGELES



diskoak



E.H. Sukarra

Ura sutan

(iraganaren ispilua urratuz)

Esan Ozenki, 1996

E.H. Sutan. Hemen daude berriz. Oraingoan laukote gisa, Märce-en bajaren ondoren. E.H. Sukarra jadanik gure artean instituzio bat da, eta *Ura sutan* CDarekin rockaren klabea izatera pasatu da. Lau garren lan honetan berriz bihurri agertzen dira, eta ohituta gaituzten baina freskotasun gutxiagorekin, bigarren parametrotara ateratzen dira. Aurrekoari, *Garaien laberintoa*, freskotasun itzela zerion eta erraz asimilatzekeo kantutak aukera zitezkeen, *Ura sutan* honetan zailagoa da, ordea.

Eskemak gogortu egin dira, gitarrek tentsioa erakusten dute momentu guztian, osotasuna si kuagoa da, baina ez du esan nahi lan txarra denik. Arazoa publikoaren asimilazioan dago, gaur egungo masaren belarriaren *borregismoan*, hain kezagarria dena. Arazo horren aurka borrokatzekeo, CDari izena ematen dion singlearekin kontaktzen du, lanaren formatua baino biribilagoa. *Birziklapen industrial*a abestian E.H. Sukarra esperimentalak aurkitzen ditugu; *Urteko pqsarteak* reggae doinua, paradoxikoki, dotorea baino ez da bere egoera rockeroan; *Espaloi galdunak* kanta handia da; *Barbituriko bariko barbak* abestiak Pistolen *God save the queen* abestia gogorarazten du

bizpahiru segundutan, nahiz eta zerikusi handirik ez izan punkarekin eta bai rock & rollarekin. Aurreko diskoaren *Sentipen bihotza* abestia, *Zentzupeko ur epela* deitzen da aldi honetan.

Ezin dugu ahaztu Asier Serranok literatur arloan egindako emaria, aberastuz eta okertuz, aldi berean, eibartarren jaiotze berri hau, E.H. Sutan ederto izenda zitekeena.

iban gorriti



The Cars

Anthology. Just what I needed.


Elektra, 1995

Oraindik ere primeran. Gure artean nork ezagutzen du gaur egun Rick Ocasek? Esku asko gabe kontu litezke pertsona apur horiek, ezta? Bada, tipo hori mito bat izan da Estatu Batuetan, eta oraindik ere hango eta hemengo zenbaitentzat hala da. Cars, izen simple, agian simpleegi horrek ezin hobeto bildu zuen 80ko hamarkadan *pop art* musikala. Autoak, *hamburger*-ak, plastikoa eta 15 urteak, horiek argitzen dute beren filosofia guztia. Sei diskoren guraso da Ocaseken taldea. Gaurko gazte rockero gutxi ulertzen du bere zentzu eta norabide musikal eta estetikoak. *Light* izatearen arbaso baitira, bizitza errazaren seme. Eta gaur dena *hard* da. Dirudunenek ere pobre irudia saltzen dute. Sufrituak daude modan.

Izatez, Boston hirikoak, Har-

vard unibertsitatearen itzalpean sortuak, eta beren garaian gogorrenen, punk-en eta baita bigunen deboziokoak ere. Taldearen lehen bi diskoak pop musikakoak dira, gero konplikatu zituzten gauzak, *Panorama* (1980) diskoan beste arlo batzuk lantzeko ere gai zirela erakutsiz. Laboratorioko pop-a. Eta azkenerako, *Hearbeat city* (1984) lana egin zuten, beren arrakastarik entzunena, eta ikusiena, Warholek bizirik egin zuen azken kolaborazioetako batekin. Geroztik, auto hauen gainean bilduma lan bat baino gehiago egin da, batzuetan arrakastak eta besteetan singleak bilduz, baina inoiz ez hemen bezain lodi eta sendo. Argitaragabeak, demo eta bestelako birgrabazioz jantzita baitator antologia luze hau. 40 kantu dira, e! Eta ez bi minutukoak! Horrez gain, taldearen argazki-historiaz, kantu-urtez, arrakasta-zenbakiz eta bestelako informazioaz 28 orrialdeko liburuxka. Auto historikoak aparkatuta daude, baina motoreak martxan dituzte. Taldearen orain arteko guztia duenarentzat ezinbesteko bilduma; ezer ez duenarentzat zer esanik ez.

joseina etxeberria



Los Maraños

Los Maraños

Edel Music, 1996

Berotasun klasikoa. 1987. urtean Murtzian osatutako talde honen lan berria dugu esku artean, ize-

nik behar ez duen diskoa delarik, bertan taldearen muina, esentzia aurki dezakegulako; hauxe da Los Maraños, goitik behera. Ez zuten abesti zaharrez betetako zuzeneko disko bat egin nahi, baina ezta ere estudiokoa, beraz, erdibidean gelditu dira; biltegi batean sartu zituzten grabatzeko eta jozteko behar zituzten tramankulu guztiak, lagun batzuk ekarri eta bi egunetan diskoa prest; akatsekin, inprobisazioekin... Freskotasuna, *feeling*-a. Sei abesti zahar, hamabi berri, Frank Zapparen *My guitar wants to kill your mama* abestiaren bertsio aparta. Kolaborazio garrantzitsuak, gehienbat Josele Santiago (Los Enemigos) eta Hendrik Röever (Los Del Tonos) gitarretan. *Funky*-a da nagusi diskoan, nahikoa garbia baina batzuetan ukitu *metalero* txiki bat ere azaltzen delarik. Los Del Tonosekin parekotasun estilistikoa nabaria da, bi taldeek maila antzeko dutelarik; instrumentalki ezin hobeak, ahotsetan, ordea, eskasagoak. Bi kasuetan hirukote izateak zerikusia izan dezake horretan, ez baitu erraza izan behar instrumentuekin trebezia hori erakustek eta era berean abestek. Rock doinuak ere badaude, blues pare bat, pop-a, baina dena klasikotasun handiz eginda. Akats bakarra (ahotsaren arazoa alde batera utziz), ekoizpena izango litzateke. Paco Trinidadek bete du lan hori, talde honen aurreko diskoetan bezala; nik ez nuke inoiz ekoizle horretan pentsatuko horrelako disko bat egiteko, eta diskoa entzun ondoren, guztiz baieztatzen dit iritzia: gorputzik gabeko ekoizpena, ahula, sekzio erritmikoan, batik bat.

jon martija


t o
p e
r a

- Kepa Junkera & Julio Pereira.**
Lau eskutara.....8,3
Elkar, 1995
- Negu Gorriak.**
Idea zabaldu.....7,8
Esan Ozenki, 1995
- La Piel. La Piel.....** 7,7
Sony, 1995
- Xabier Montoia.**
Beti oporretan..... 7,6
Esan Ozenki, 1995
- Mikel Erentxun.**
El abrazo del erizo.....7,5
Dro, 1995
- Ruper Ordorika.**
So' ik so'..... 7,3
Nuevos Medios, 1995
- Nacion Reixa.**
Alivio rápido.....7,1
Dro, 1995
- Ganbara.**
Itsas zabalean.....7
Elkar, 1995
- Gari. Gari.....** 7
Elkar, 1995
- Dut. Dut.....** 6,8
Esan Ozenki, 1995

Hautagaiak

- Jabier Muguruza.** Kitarra bat nintzen.....6,2
Elkar, 1996

Zerrenda hau **Joseba Martin** (Radio Euskadi), **Javier Corral Jerry** (Bilboko Herri Irratia), **Jon Martija** (Donostiako Herri Irratia) eta **Joseina Etxeberria** (Euskadi Gaztea) emandako botoekin egina dago.



X A R I B A R I

Legazpi Bi - 943 42 13 12 - DONOSTIAN 200.04
Bajada de Javier, 2 - 948 22 27 56 - IRUÑEAN 310.01